

8- Funtzesko jarduerak

Edozein negozio-ereduetan hainbat funtsezko jarduera egin behar dira, enpresak edo erakundeak ondo joan dezaten. Funtsezko baliabideak bezala, funtsezko jarduerak ere ezinbestekoak dira balorezko proposamena egiteko, bezero potentzialengana iristeko, bezeroekiko harreman eraginkorrak eraikitzeke eta diru sarrerak lortzeko.

Funtsezko jarduerak zenbait ataletan sailkatzen dira:

- Ekoizpena: Enpresaren jardueretako bat da ekoizpen-prozesua eta hainbat ikuspuntu dago prozesu hori aztertzeke. Hona hemen hiru:
 - Ikuspuntu ekonomikoa: Ekoizpen-prozesua da kontsumitzailearen beharrak asebetetzeko ondasun eta zerbitzuak sortzea, ekoizpen-faktoreak baliatuta.
 - Ikuspuntu teknikoa: Ekoizpen-prozesua da esku-lana, makineria, energia, lehengaia eta abar, konbinatzea, teknologiak lagunduta.
 - Erabilgarritasun ikuspuntua: Ekoizpen-prozesua da ondasunei balioa eranstea.
- Arazoak konpontzea: Enpresan arazoak badaude saiatu behar dugu arazo horiek denon artean konpontzen enpresa ondo joan dezan.
- Plataformako edo Sareko jarduerak: Webgune batean gure produktua edukitze badugu, beti berritzen egon behar gara, zeren eta webgunea horretan jende asko sartzen da eta ezin duzu utzi webgunea zaharkituta.

Funtzesko jarduera batzuk utzi ahal ditugu beste enpresen eskuetan adibidez nominak egiterako orduan. Baina ezin duguna utzi beste enpresen eskuetan da know how (ezagutza). Know how da zerbait lortu ahal izateko beharrezkoa den ezagutza praktikoaren inguruko termino bat. *Know-what* (gertaerak), *know-why* (zientzia) edo *know-who* (komunikazioa) ez bezala, *know-how* sarritan ezkutuan mantentzen den ezagutza da, eta beraz, ez da hain erraza beste pertsona bati idatziz edota ahoz partekatzea.